

GOGOETARI LEIHO


Munduko leku-izenak liburuaren inguruan (I)

LUZAROKO LAN IXILEN ondoan, bat-batean eta udaberriko perretxiko gisa, inoiz euskal alorrean ustekabeko fruitu ederrak sortzen zaizkigu. Horixe da Elhuyar-Elkarraren eskutik egunotan plazaratu den Munduko leku-izenak liburu ederraren aurrean esan dezakeguna. Idazlanaren asmoa, bestalde, garbia da, izenburuak berak argiro aitortua, munduko nazio, estatu, hiri, herri, mendi, itsaso, laku eta geografi izenak euskaraz finkatzen ahalegintzea, horretarako erizpide eta erregelak emanez.

Zail egiten da, egiaz, gure artean hain tradizio eskasa duen arlo honetan erizpide finkorik ematea, hemen gure orain arteko ohitura buru bezainbat aburu izan baita, ez baikara alferrik euskaldunok munduko herriarik anarkistena, geure hizkuntzari dagokionez behintzat, beste erdarek gutxi bezalako errespetu eta arreta eskaintzen diegun arren. Geografi izenak euskaraz finkatu beharra dugula, ordea, ez digu bere senean dagoen inork ukatuko, eta alde horretan, Euskaltzaindiak 1975.ean oinarritzko zerrenda bat plazaratu zuen jadanik, harez gero, zoritxarrez, osatu ez duena. Geroagoko hitzegile batzuk, bide hari segituz nolabaiteko gehipenak egin ditugu, geure lanen orokortasuna kontutan izanez, ordea, barruti zabal hori bere osoan ezin besarkatuz.

Alde horretatik, gure hizkuntz akademiaren azken urteotako arduragabekeria ulergaitzaren hutsunea bete nahian edo, Elhuyarreko lankideek beren 10.000 hitzetatik gorako proposamena egin digute, material, datu, erizpide eta arau interesgarriak eskainiz. Liburuak, gainera, txukun eta argi argitaratu da, toki-izenak bilatzeko aurkibide egoki eta ongi pentsatuekin, horrela erabiltzailearen bilatze-lana errazteko. Horregatik besterik ez balitz ere, guztion txalo, zorion eta eskerra jaso beharko luketela uste dut zin-zinez.

Niri doakidanez, esan dezadan, hasteko, egileek erabiliriko erizpide gehientsuekin erabat bat natorrela, eta beren lanari neure aldeko botua zi-



AITOR HERNANDEZ

nez ematen diodala, oso probetxugarri deritzot eta. Ongi etorriak izan bitez, bada, erizpide eta jarraipideok, guztien gogokoak ez badira ere, horiek, gutxienez, eredurik bat ere ez izatea baino hobe izango baititugu. Eritziak eritzi, eta munduan gauza hobezinik ez dagoelakoan, ordea, ohar batzu egin nahi nituzke, biltzaile eta, oro har, irakurleen kontsideragarri.

Liburuak ez du beti errespetatzen hitzaurrean oinarritz harturiko erizpidea, eta haxe da, oro har, egin dakioken kritika nagusia, hainbeste hitzen artean inoiz lapsusak gertatzea normala bada ere. Adibidez, v letra onetsi arren, Jugoslavia, Txekoslovakia, Venezia, Viena, Vilnius, Eskandinavia edo Vietnam hitzetan bezala, ondoren Sobietar Batasuna azaltzen zaigu, Sovietar Batasuna jarri beharrean, hitz hori (soviet eta sovietskij) errusieraz v-duna izan arren. Gauza bera daksagu Geneba hitzean, Geneva-ren orde.

Gure hizkuntzan aintzinako literatur tradizioa duten kanpo-toponimoak (Ternua, Bordele, Madril, Bartzelona) ez dira beti beren euskal eraz errespetatu. Gerta daiteke behialako Gordoia, orain arte euskal deituetan iraun duena, gaur urrunegi gelditzea iturburuzko Córdoba-tik (edo-

nola ere, Ternua Terranova-tik bezalatsu), baina Andalusiako Sibilis edo Galiziako Done Jakue hiriak aipatu ere ez dira egiten, Sevilla eta Santiago era bakarrik agertuz.

Euskal alfabetoa mugatzean c, ç, q, v, w eta y letrak kanpotar izenak transkribatzeko erabil zitezkeela zioen Euskaltzaindiak, hitz horien arrotasuna gordetzeko. Eta Elhuyarrekoek, beren liburuan, oro har, hori egiten duten arren, badi-rudi kasu batzutan nolabaiteko ezinikusia dietela q, w eta y letrei, berauek maiz, gogoak eman ahala, k, u eta i edo j bihurtzen baitituzte.

Zer dela eta, adibidez, arabierazko q (k aspiratuaren adierazlea) Qatar, Iraq, Al Qasim, Al Balqa edo Al Madraq izenetan, arbitrarioki Katar, Irak, Al Kasim, Al Balka edo Al Madrak gisa transkri-

batu, horien ondoren txinerazko Qormi edo Qinghai onartzen diren artean?

Zein da bestalde, Tokyo, Kyoto, Kenya eta Netanya hitzei silaba bat gehitzeko arrazoi ezkutua, Tokio, Kioto, Kenia eta Netania grafia emanez, horien ondoan Konya, Kanye, Nyong, Myeri, Nyanza, Sunyani edo Monywa erasten badira? Logikoa al da, bestalde, w grafema, diptongoa adierazten duena, u bihurtzea (Ar Ruwaq, Rwanda, adibidez Ar Ruak, Ruanda utziz) beste hitz askotan w letra errespetatzen denean (Kuwait, Kerewan, Malawi, Mwanza, Kukwit, Kolwezi etab.)?

Zergatik hasierako y kasu batzutan bai (York, Yukon, Yunnan, Yamaguchi, Yokohama, Yukatan, Yamagata), baina beste batzutan ez (Jemen, Jamsk, Jakutia)? Ez al zaigu bestalde, fonetika-informazioa ezkutatzeko dj eta zh duten hitzak (Azerbaidjan, Djakarta, Djibuti, Zheleznogorsk) j hutsaz agertuz? Bide berean, errusierazko letra berezi bat transkribatzeko, bertako fonetikaren arauera, aski genduke euskaraz stx idaztea, proposatzen den shtx harrigarri horren lekuan.

XABIER KINTANA

'Eusk' ere Donostiyan

JOXE AIZPURUA

Lengo ostegunian 'Eusk' delako kontzertu ospatu zuten Bilbon. Jende mordoxka bildu emen zan bertara. 'Bilbo Euskalduntzen' taldeak egin zuten deya, nunbait, eta jendiek etzun kaleik egin. Baten batek esana du dagueneko orduko 'Bai euskarari' aren pareko izantzala. Eztakit.

Dakitena da guaingo onartu Bilbaokoak artu digutela aurre. EGUNKARIAkoak guain dela pare bat aste txoko onartu bertan argitaratu zidaten artikuluxkan (milla esker) bilbotarrak eakutsi bearreko euskerarekiko atxekimendubatu atatu nun. Kantaldi ontakoak aittuta, leikena da nik uste baño euskaldunago izatia, uste baño euskerazaliya izatia. Baten batzuk bintzat. Noizko olako bat Donostiyan? o Iruñan o Bitorin?

Agiri da bilbotarrek badakutelako auditasunerako alako barren-gogorik, beti dabilzatenela audi keran. Ba, guainzaten eakutsi dute badakitela moldatuaudioitan ere euskera etia.

Bertsolariyak, trikitilariyak, letra gizonak, pintoriak eta nolaezpa kantariyak artu zuten parte jayaldiyan. Kantantiyak gustora eta jendia gustorago. Moderno batzuk, eta ez orren moderno bestiak. Dana dala, bateginda agertu ziran eta bateginda in zuten euskeraren alde. Gu xaartuok ez emen gea burrundazaliyak, ori esanten dute batzuk, ala-koetan ordea, ongi etorri burrunda!

Leen esan detan bezela bilbotarrak artu digute aurrea, eta gaiten geratu ordea atzian eta eutsi zaiogun ejenpluai. Badaukate lan aundia Bilbaon. euskerak aldapa gogorra dauzka ango dorreluze tartian. Ba emen dago, ordia, euskera maite duna. Donostiya eta Gasteiz puzkun daukat nik kezka eta beaz, olakorik eskatzen dut gure baztarretarako. 'Eusk' geyo re baztarretarako. Eusk baño obiar ditugu eta Eusk baño obiar to euskaldunak. Orren belodromo aundiya izanda ere, beateko ez degu ba! Aukera emen dezaigutela sikiera, eta gure gogua eakutsiko diyogu biar danari.

Zorionak bilbotarrei eta animo!

ORAIN DELA HOGEITABOST URTE...



'Gaur', 'Emen', 'Orain' eta 'Denok' taldeek agiri bat argitaratu zuten

Remigio Mendiburu, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Amable Arias, Rafael Ruiz Balerdi, Jose Antonio Sistiaga, Jorge Oteiza eta Eduardo Txillidak osatutako 'Gaur' talde gipuzkoarrak, Bizkaiko 'Emen', Arabako 'Orain' eta Nafarroako 'Denok' artista taldeekin batera, artisten 'Euskal Ikastola' baten aldeko agiri batertua argitaratu zuten 'Zeruko Argia' aldizkarian, 1966ko maiatzaren 8ko alean.

«Bein da berriz eskatu degu», dio agiri honek, «(ta etzaigu entzun ere egin), gure-gureak liraken Eralgun-tza batzuek jaso ditezela, bai erti-berrienak jasotzeko eta gure ertilari gazteak gaitzeko; gure irakaskintza mailla guztian eder-izti erakusketa

eman dedin; gure erriko ertia pizkortzeko ta gaurko munduko joerak artzeko».

Agiriak, euskal 'ertilari' edo artista guztiei dei egiten zien, «gure oraingo jokaera erabaki dezagun denok buru ta biotz batuarekin lan egiteko».

Erakusketa bat antolatu zuten 'Gaur' taldekoek garai hartan, Donostian ikusi ahal izan zena lehenengo, eta Bilbo, Gasteiz eta Iruñera eramanez behar zena gero. «An erabakiko ditugu», zioten agiri sinatzen zutenek, «Euskal Ikastola onen oiñarriak eta aurrerako asmoak mugatuko dira bide batez. Gure Araudi ta geroko egitekoak ere, tinkatuak utziko ditugu bertan».